


1. GURE KULTURA KONTSUMOA

Bideoa ikusi ondoren, orain zure txanda da! Aurrean duzun taulan agertzen diren aisialdiko ekintzetatik zein egiten duzu? Eta zein hizkuntzatan? Bete ezazu taula:

	Batez ere EUSKARAZ	Batez ere GAZTELANIAZ	Batez ere INGELESEZ	Zergatik?
Telebista ikusi				
Irratia entzun				
Liburuak irakurri				
Zineman filmak ikusi				
Musika entzun				
Kontzertuak entzun				
Antzezlanak ikusi				

(Tribuaren berbak: *Eskolaz kanpo, aisian aise!* sekuentzia didaktikotik hartua eta moldatua)

Taldean jarri eta taldekide bakoitzak bere erantzunak azaldu ondoren, guztion artean ondorioak atera beharko dituzue:



2. ETA MUSIKAZ, ZER DIOZU?

- ★ Imajinatzen duzu musikarik gabeko mundu bat?
- ★ Garrantzitsua da musika zuretzako? Hala bada, zer ematen dizu musikak? Zertarako entzuten duzu?
- ★ Zein da musikarekin duzun harremana? (entzulea, jotzailea, kantaria...)
- ★ Egunero entzuten duzu musika?
- ★ Noiz entzuten duzu musika?
- ★ Non?
- ★ Norekin?
- ★ Zein musika mota entzuten duzu?
- ★ Zer formatutan entzuten duzu? Nondik lortzen duzu?
- ★ Nola ezagutzen dituzu kanta berriak?

(Lan honetatik hartua eta moldatua: AZPIRI, ARRIAGA, Garazi. (2014-2015). [Hezkuntza informalearen eragina gaztetxoek musika ohituretan](#). 39. or. EHU)

Bete ezazu taula:

Kantari edo talderik gustukoena	Puntuak
1.	5
2.	3
3.	1

(Tribuaren berbak: [Eskolaz kanpo, aisian aise!](#) sekuentzia didaktikotik hartua eta moldatua)

Orain, guztion erantzunak bildu eta gelako 'Top 3a' eginen dugu:

Gelako kantari edo talderik gustukoenen sailkapena
1.
2.
3.

(Tribuaren berbak: [Eskolaz kanpo, aisian aise!](#) sekuentzia didaktikotik hartua eta moldatua)

Gatozen euskal musikara...

Zer da, zure ustez, euskal musika?

Konparatu zure erantzuna bideoan ematen denarekin. Ados zaude bideoan erraten denarekin?

[Musika estiloak](#) bideoa ikusi ondoren, bete ezazu taula gustukoen dituzun euskal kantari edo taldeen izenekin.

Euskal kantari edo talderik gustukoenak	Puntuak
1.	5
2.	3
3.	1

Orain, guztion erantzunak bildu eta gelako 'Euskal musikaren Top 3a' eginen dugu:


Gelako euskal kantari edo talderik gustukoenen sailkapena
1.
2.
3.

Entzun [Musikariak](#) bideoan euskal musikari batzuen iritzia.

Euskaraz kantatzen duten bakarlari edo talde asko ezagutzen dituzu?

Zenbat musika estilo ezagutzen dituzu euskaraz? Gutxi? Askok?

Sar zaitez [www. badok.eus](http://www.badok.eus) webgunean eta MUSIKARIAK atalean uste baino estilo gehiago aurkituko dituzu.



Murgil zaitez estilo desberdinetan, aukeratu deskubritu berri dituzun talde edo bakarlarien artean bat eta bete ondoko taula:

Deskubritu berri dudan taldea edo bakarlaria	
Taldearen/bakarlariaren izena:	
Musika-estiloa:	
Nongoa:	
Kanta baten izenburua:	
Zergatik aukeratu dudan:	

Karaokerako prest?

Orain [karaokeari buruzko bideo bat](#) ikusiko duzu.

Zuk zer euskal kanta aukeratuko zenuke karaokean kantatzeko?

Ea www.txantxangorria.eus webgunean aurkitzen duzun...



Hezkuntza Departamentuaren 'Musikariak ikastetxeetan. Girotzeko jarduerak',
Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.